

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Chanel n° 5

UROLAREN BOKALE TROPIKALERA Seychelleetatik iritsitakoa, hazia beharrean *Vetiveria zizanioides* belarraren sustrai muturren bat izan zitekeen, pagozko gilaren batean kateatuta etorria. Baita Sheyhelletakoa beharrean, India, Brasil, Txina, Sri Lanka, Java edo Kaprikornio tropikoko Reunion Uhartekoa izan ere. Ez dakit nola deitu behar dugun belar hau, frantsesez bereganatu duten hinduen kus-kusa ala gazteleraz jaso duten tamilen *vetivera*. Biak politak baina, azken hizkuntza drabidar hori euskararekin lotzen saiatu izan direnez, vetivera. Bi kultura horien arteko guda bizi duten Sri Lankakoa da jatorriz.

Vetivera, bi metrotik gorako hostoak eta goitik behera, zuzen, lauraino luzeko sustraiak dituen belarra da. Lurrari eusteko bezala hostoz zein sustraiz tapizak, saskiak, teilatuak eta abar egiteko erabilia. Abar artean abaniko haizemaileak. Mogol enperadoreek erabiltzen omen zituzten, urrez zipriztinduta. Zipriztinok inguru beroa hezetuko zuten, baina baita zizanol eta epizizanol terpenoa, intsektu uxatzaileak askatu ere. Lurringintzak barreiatu du,

Reunion Uhartean ekoizten da gehienbat koloniak egiteko erabiltzen den vetiver esentzia.



Esaera

“Apirilaren azkenean,
hostoa haritz gainean”

bai, ultramarino kolonial vetiveraren fama, Paristik barrena luze hedatutako tapiz gorrietan; Urola aldera ere urrez baino lehenago iritsitakoa izango zen. Gaur egun, Frantziak ustez bere zuen Haitin eta Indiako Ozeanoaren bueltan ekoizten da. Ozeano honen tropikoan dago, Dina Morgabin arabiar-tua, gero Santa Apolonia portugaldartua eta azkenik Luis XIII.aren *Île Bourbon* eta iraultzaileen *Île la Reunion* gisa frantses-tua izan, eta gaur oraindik kolonia duten uhartea.

Mundu osoan koloniagintzarako behar den vetiver esentzia kolonia honetan sortzen da gehienbat, “Bourbon” deituriko goren mailakoa. Jakien iraunarazle ere bada, zainzuriena batik bat. Latorrizko ontzi luzexketan bai, baina vetiver gehiena lurrin flasko pinpirinetan bahitzen da. Erreskatea garesti arraio ordainduta eskumutur, lepa-zain eta erretenetan fis-fis askatzeko. Ustez itxura guztiz dirudienez, erretreta adinaren buelta-koentzat mitikoa den Chanel n° 5 lurrinaren osagai da, agidanean. Intsektuak uxatu eta gizakiak oratu.



142 milioi

2006. urtean 2.204 Lorategi Botaniko zeuden 153 estatutan. Bertan lur osoko landare guztien zati handi bat jagon da. Lorategiok sustatzeko BGCI elkarteak 6,13 milioi landare biltzen dituztela jotzen du, ehunen bat mila espezietakoa. Gutxi gehiago landare hodidunen laurden bat. Arraroak edo desagertzeko bidean dauden 10.000. Horiek bizirik, hil eta lehortutako 142 milioi espezimen jasota dituzte bildumetan.